**ETXEBIZITZA ETA LURZORUAREN ARLOAN JARDUKETA BABESGARRIEI BURUZ 2005. URTERAKO KREDITU-ENTITATEEKIN IZENPETUTAKO FINANTZA-LANKIDETZARAKO HITZARMENA.**

---

**CONVENIO DE COLABORACIÓN FINANCIERA CON LAS ENTIDADES DE CRÉDITO SOBRE ACTUACIONES PROTEGIBLES EN MATERIA DE VIVIENDA Y SUELO PARA EL AÑO 2005.**

Vitoria-Gasteizen, 2005eko urtarrilaren 3an.

**BILDUTA,**

Batetik, Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain and., Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio sailburua eta Javier Madrazo Lavín jn., Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta ordez jardunez, eta

Bestetik, ondoko kreditu-entitate hauetako ordezkariak: Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia-Kutxa, Vital Kutxa, Lankide Aurrezkia-Euskadiko Kutxa, Ipar Kutxa, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, Banco de Vasconia, la Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona ("La Caixa"), Banco Santander Central Hispano, Banco Guipuzcoano, Banesto, Banco Zaragozano, Banco Popular Español, Caja de Madrid, Caja de Burgos, Caja Rural de Navarra, Caixa Galicia, Caja de Ahorros de Santander y Cantabria, Caixa Catalunya, Bankoa-Crédit Agricole, eta BancoPopular-e.com.

Horretarako eskuetsita daudela, eta hitzarmenkideen arteko adostasunez, hauxe,

**H I T Z A R T U  D U T E**

**LEHENENGO KLAUSULA.- HITZARMENAREN XEDEA**

Hona hemen zein den Hitzarmen honen xedea: entitate sinatzaileen arteko lankidetzaren baldintzak finkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan 2005. urterako etxebizitza eta lurzoru arloan jarduketa babesgarrien finantzaketa-ildoak ebaztekotan.

Euskal Autonomia Erkidegoan arlo honetan ezar daitekeen legezko eta arauzko arautegia honako hauez zehaztua dago:

- Abenduaren 30eko 315/2002 Dekretua, Babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

- Azaroaren 25eko 290/2003 Dekretua, Babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko Dekretua aldatzen duena.

- Urtarrilaren 18ko 10/2005 Dekretua, Babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

- Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.

- Abenduaren 14ko 250/2004 Dekretua, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan kreditu-entitateek eman ditzaketen mailegu kualifikatuen interes-tasak ezartzen dituena.

2003ko uztailaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailbururena, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzkoa.

2004ko irailaren 15eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailbururena, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko Agindua aldatzen duena.

2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailbururena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa.

2004ko irailaren 15eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailbururena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Agindua aldatzen duena.

2004ko abenduaren 15eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailbururena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, etxebizitza-premiaren egoerei buruzkoa.

2003ko abenduaren 16ko eta 2004ko abenduaren 9ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailbururena, etxebizitza-premiaren egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Agindua aldatzen duena.

2004ko abuztuaren 1eko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2003ko abuztuaren 25eko Agindua aldatzen duena.

2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartzen dituena, eta 2004ko abuztuaren 4ko Agindua, aurreko Agindua aldatzen duena.

2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, lehentasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu-bidez eskuratzeari dagozkion lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa.

2004ko maiatzaren 14ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruan 2004. urtean babes daitezkeen zenbait jardunetarako laguntzak finantzatzeko kredituen zenbatekoak iragartzen dituena.

136/2004 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuko 4312 "Etxebizitza" Programan diru-sarrerak lortu direla-eta, programa horretan 1.200.000,00 euroko kredituak habilitatzen dituena.

10/2004 Legea, abenduaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2005. urteko Aurrekontu Orokorrak Onartzen dituena.

Adierazitako araudiari jarraiki, Hitzarmen honetan bilduriko itun bakoitzaren erregulazio juridiko berezia zerrendaturiko xedapen bakoitza indarrean noiz sartzen den arabera egingo da, betiere indarrean badago. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean araudi-aldaketak gertatu eta

aldaketa horiek dokumentu honetan ezarritako eraginpean hartzen badute, dagozkion neurriak hartuko dira eraginpeko klausulak aldaketa horietara egokitzeko, 5.3. Klausulan ezarritakoa izan ezik, aldez aurretik alderdien arteko negoziazioa beharko baita kasu horretan.

**BIGARREN KLAUSULA.- KREDITU-ENTITATEEN KONPROMISOA**

2.1.- Kreditu Entitateek gehienez eman dezaketen kreditu-bolumena, dauden aurrekontu baliabideen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak xedatutakoaren arabera zehaztuko da. Hasieran 228 milioi euro inguru kalkulatu da.

Establezimendu horien zerrenda I. Eranskinean zehazten da.

2.2.- Kreditu Entitateen esku geratzen da eskaera nahikorik eza dagoen erabakitzea. Entitate horiek hilero Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari helaraziko diote eskatutako maileguak ukatu zaizkien pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda zehatza eta bana-banakoa.

Sailak berariaz hala eskatuta, jakinaraziko da zehazki zein arrazoirengatik ukatu zaien mailegua.

2.3.- Kreditu Entitateek, honako konpromiso hau hartu dute: hitzarmen honen gai diren jarduketa babesgarrietarako maileguak ematekoa, kasu bakoitzean aplika daitekeen legeriak, Lehenengo Klausulan adierazitakoak, ezarritako baldintzen arabera.

Maileguen gehienezko zenbatekoa eta gainerako ezaugarriak, aurreko idatz-zatian adierazitakoaren arabera xedatutakoak, berariazko administrazio-ebazpenaren bidez onartuko dira.

**HIRUGARREN KLAUSULA.- APLIKAZIO-ESPARRUA**

3.1.- Hitzarmen honen xedapenek arautuko dituzte Kreditu Entitate sinatzaileek honako arlo hauetan ematen dituzten maileguak: Babes ofizialeko etxebizitza gisa kalifikaturiko eraikuntza berriko etxebizitzak errentan lagatzeko, saltzeko eta norberak erabiltzeko sustapena, eta baita etxebizitza librearen sustapena ere hura babespeko errentan jartzeko.

Babes ofizialeko etxebizitza-erosketa.

Erabilitako etxebizitza errentan ematea (errentariarentzako laguntzak).

Etxebizitzaren babespeko errentamendua, etxebizitzak erostea haien babespeko errentamendurako eta etxebizitzaren lagapena babespeko errentan jartzeko.

Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzea, eta birgaitze-jarduketak, betiere haien helburua etxebizitzak sustatzea bada, ondoren jabetzapean edo errentamendupean lagatzeko.

Lurzorua urbanizatzea berehala eraikitzeko, kasuak kasu, hura kostu-bidez eskuratzea barne hartuta, eta baita lurzorua kostu-bidez eskuratzea ere edozein Herri Administrazioren menpeko lurzoru-ondare publikoak eratzeko, betiere lehentasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratuta.

Etxebizitza hutsak errentan jartzea.

3.2.- Aplikazio-esparruan hauek sartuko dira: lehenengo eskualdaketan babes ofizialeko edo bestelako jarduera babestuko etxebizitzak erosteko subrogatu gabeko zuzeneko maileguak, hitzarmen honen lehenengo klausulako araudiaren arabera arautuakoak, baldin eta horien administrazio-baimena hitzarmen honek indarrean dirauen bitartean gertatzen den. Hitzarmen honen klausulek arautuko dute zuzeneko diru-laguntzen aurkakoa ez den guztia. Zuzeneko diru-laguntzak beren araudiaren arabera onartuko dira.

**LAUGARREN KLAUSULA.- ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK AURRETIK BAIMENA EMATEA**

4.1.- Hitzarmen honi lotutako mailegu bat eskuratu ahal izateko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aurretik bana-banako baimena eman behar du.

Horretarako, Kreditu Entitateek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzari igorri beharko dizkiote eskaerak, maileguaren eskritura publikoa edo kontu harturiko polizan gauzatu baino lehen igorri ere. Aurretik baimenik ez izateak kasuan kasuko mailegua Hitzarmen honen aplikazio-esparruan ez sartzea ekarriko du.

Onarpen-eskabideak posta elektroniko bidez edo euskarri magnetikoan 3 1/2"-ko disketetan egingo dira, II. Eranskinean (Maileguak eta subsidioak onesteko diskete-formatua) azaldutako xehetasunen arabera. Dena dela, paperean ere (D-23; maileguak eta subsidioak onesteko oinarri-dokumentua) egin ahal izango dira, Hitzarmen honetako II. eranskinean ezarritakoaren arabera, baldin eta onartzen diren eskarien kopurua hilabetean 25 baino gutxiago izanez gero.

Maileguen onarpen-eskariekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- Lurzoru-arloko jarduketa babesgarrietako maileguetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin berariaz izenpetutako Lankidetza Hitzarmenaren fotokopia.

Bestelakoetarako ez da agiri gehigarririk igorri behar izango.

4.2.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak honako konpromiso hau hartu du bere gain: Kreditu Entitateari maileguaren baimen edo ukapen arrazoitua jakinaraztea, eskaera osoa jasotzen duenetik hamabost laneguneko epearen barruan.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoa aparte utzi gabe, epe hori igarota Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak berariaz ezer adierazi ezean, jakinarazitako mailegua Sail honek ukatu egin duela joko da.

4.3.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak baimendu duen mailegu bakoitzaren jakinarazpenean, espediente-zenbakia adierazi beharko da, gerora egingo diren jakinarazpenetan nahitaez azaldu behar baitu (maileguaren formalizazioa, erabilerak, amortizazioak, likidazioak).

4.4.- Maileguen berariazko baimena ezinbesteko baldintza izango da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak subsidioa ordain dezan.

4.5.- Subsidiatuta ez dauden maileguetan ez da klausula honetan jasotzen den aurretiko baimena eman behar. Dena den, Kreditu Entitate sinatzaileek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari onetsitako maileguen hileko eragiketa formalizatuen berri eman behar diote hilaren lehenengo hamar lanegunen barruan, baita aurreko hilean formalizatu eta prestatutakoenen berri ere, Hitzarmen honen zazpigarren eta zortzigarren klausuletan ezarritakoaren arabera. Beraz, administrazio-baimena ematen denean edo, hala ez balitz, kreditu-entitateak mailegua formalizatzen duenean zehaztuko da hasierako interes-tasa nominala.

Deskontu-lerroetan eta sustatzaileei egindako maileguetan –beren subrogazioak dituztela-, mugimenduen jakinarazpenak eta izapideak osorik egingo dira.

**BOSGARREN KLAUSULA.- MAILEGUEN EZAUGARRIAK**

**5.1.- AMORTIZAZIO-EPEA**

A) Errentan jartzeko etxebizitza libreak eta errentan jartzeko babes ofizialeko etxebizitzak, hala erregimen orokorrekoak nola sozialekoak, sustatzeko maileguetan, birgaitze-jarduketen bidezko sustapena barne: 20 urte, gehi hautazko 3 urteko gehienezko gabealdia, seihileko osoko.

B) Saltzeko edo norberak erabiltzeko babes ofizialeko etxebizitzak, hala erregimen orokorrekoak nola sozialekoak, sustatzeko maileguetan, birgaitze-jarduketen bidezko sustapena barne: 20 urte, gehi hautazko 3 urteko gehienezko gabealdia, seihileko osoko.

C) Babes ofizialeko etxebizitzak erosteko maileguetan: 20, 25 edo 30 urte. Aukeran, maileguaren kontratuak bi urteko gabealdia izan dezake; hura bukatuta, tronkoaren amortizazioa 18, 23 edo 28 urteko epearen barruan egin beharko da.

D) Birgaitze babesturako maileguetan:

-15 urte. Aukeran, maileguaren kontratuak hiru urteko hautazko gabealdia izan dezake; hura bukatuta, tronkoaren amortizazioa 12 urteko epearen barruan egin beharko da.

- 5 urte, gehi hiru urteko gehienezko gabealdia mailegu pertsonalerako, seihileko osoko.

E) Errentan emateko diren etxebizitzak erosteko maileguetan: 20 urte gehi 3 urteko gehienezko gabealdia, seihileko osoko.

F) Babespeko errentan jartzeko etxebizitza sozialak lagatzeko maileguetan: 20 urte gehi 3 urteko gehienezko gabealdia, seihileko osoko.

G) Lurzoruaren arloko jarduketa babesgarrien finantzaziorako maileguetan: 6 urte, 3 urteko aukerako gehienezko gabealdiarekin, haren barne, seihileko osoko.

H) Lurzorua kostu-bidez eskuratzen bada lurzoruaren ondare publikoa eratzeko: 12 urte, 3 urteko aukerako gehienezko gabealdiarekin, haren barne, seihileko osoko.

**5.2.- AMORTIZAZIO-SISTEMA**

Amortizazio-termino konstanteak (sistema frantsesa), kasu bakoitzean interes-tasa subsidiatuaren arabera kalkulatuak, sei hilabeteko epemugekin.

**5.3.- INTERES-TASAK, KOMISIOAK ETA BERMEAK**

Hitzarmen honen aplikazio-esparruan sartuta dauden jarduketa babesgarrietarako mailegu kualifikatuen interes-tasa, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan kreditu-entitateek eman ditzaketen mailegu kualifikatuen interes-tasa ezartzen duen abenduaren 14ko 250/2004 Dekretuaren arabera, honako hau izango da:

1.- Maileguaren iraunaldiaren lehenengo urtean honela zehaztuko da hasierako interes-tasa:

A)- Etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan kreditu-entitateek eman ditzaketen mailegu kualifikatuen interes-tasa ezartzen duen abenduaren 14ko 250/2004 Dekretua indarrean sartzen denetik 2004/12/31ra arte onarturiko maileguak: 2004ko abuztuari dagokion "Entitate multzoa" erreferentzia indizea bider % 85 eragiketaren emaitza izango da benetako interes-tasa.

Hurrengo urteetan, mailegu kualifikatuen hasierako interes-tasa honela zehaztuko litzateke:

B)- Urtarrilaren 1etik martxoaren 31 arte onartutako maileguak: onespenaren aurreko urteko azaroari dagokion "Entitate multzoa" erreferentzia indizea bider % 85 eragiketaren emaitza izango da benetako interes-tasa.

C)- Apirilaren 1etik ekainaren 30 arte onartutako maileguak: onespenaren urteko otsailari dagokion "Entitate multzoa" erreferentzia indizea bider % 85 eragiketaren emaitza izango da benetako interes-tasa.

D)- Uztailaren 1etik irailaren 30 arte onartutako maileguak: onespenaren urteko maiatzari dagokion "Entitate multzoa" erreferentzia indizea bider % 85 eragiketaren emaitza izango da benetako interes-tasa.

E)- Urriaren 1etik abenduaren 31 arte onartutako maileguak: onespenaren urteko abuztuari dagokion "Entitate multzoa" erreferentzia indizea bider % 85 eragiketaren emaitza izango da benetako interes-tasa.

Seihileko mugaegunak dituen hasierako interes-tasa nominala eragiketa horien emaitzazko hasierako interes-tasaren baliokidea izango da. Kalkulatutako interes nominalaren bi dezimal hartuko dira kontuan, hasierako interes-tasa nominal aplikagarria lortzeko.

2- Urte bateko epe hori igarota (bi mugaegun, gabealdirik izan ala ez) eguneratu egingo da interes-tasa sei hiletik sei hilera. Aplikagarri den tasaren berrikuspen hori maileguaren iraupenaren

seihileko bakoitzean egingo da, ondorioak izaten hasita hurrengo seihileko lehenengo likidazioan (3., 4., 5.,... epemugak), mailegua formalizatzen denetik.

- "Entitate multzoa" (Banco de Españako Estatistika Buletinean argitaratzen den Altxortegi eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren 1991ko otsailaren 4ko Ebazpenean definituta hain zuzen) erreferentzia-indizearen 100eko 89 EURIBOR erreferentzia-indizearen urte batera eta EURIBOR urte batera gehi 1,25 gehitzetik ateratako tartean egonez gero, seihileko 3. likidazioaren eta ondorengoen berrikuspen irizpidea, "Entitate multzoa" erreferentzia-indizearen 100eko 89 izango da.

Aurreko idatz-zatian adierazi den "Entitate multzoa" erreferentzia-indizea honelaxe lortuko da: eskuragarri den informazioarekin azken hiru hilabeteetako batez bestekoa (aurreko urteko abuztua, iraila eta urria, aribideko urteko lehenengo seihilekoan egiten diren berrikusketetarako; aurtengo otsaila, martxoa eta apirila, bigarren seihilekoan egiten diren berrikusketetarako) hirugarren hilari dagokion balioa halako bi ponderatuz.

Halaber, EURIBOR erreferentzia-indizea, Espainiako Bankuak hilero argitaratzen duena, "Entitate multzoa" erreferentzia-indizea kalkulatzeko erabili den aipatutako era berean lortuko da.

Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

- "Entitate multzoa" erreferentzia-indizearen 100eko 89 hori, EURIBOR erreferentzia-indizea baino txikiagoa bada, azken EURIBOR erreferentzia-indize hori aplikatuko da. Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

- "Entitate multzoa" erreferentzia-indizearen 100eko 89 hori, EURIBOR gehi 1,25 erreferentzia-indizea baino handiagoa bada, azken EURIBOR gehi 1,25 erreferentzia-indize hori aplikatuko da. Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Kreditu Entitateei honako hau jakinaraziko die: Entitateekin izenpetutako finantza-hitzarmenen batean tasa aldakorrei atxikitako mailegu guztietan, hurrengo seihilekoan ezar daitekeen interes-tasa berrikusia.

Berrikusi ondoren hurrengo sei hileko ordainketaren barruan interesak sortzen dituzten eragiketa guztiei ezarriko zaie interes-tasa, likidazio-aldi osoko.

"Entitate multzoa" indizea desagertu edo Altxor eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak onartu ezean, "Zor publikoaren errentagarritasuna. Indize efektiboa" izango da ordezko erreferentzia-tasa. Indize hori Altxor eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak 1989ko abenduaren 5eko Ebazpenaz zehaztu zuen eta Espainiako Bankuak hilero argitaratzen du. Kasu honetan, berrikusitako tasa kalkulatzeko ezar daitekeen koefizientea 100eko 89koa izango da.

Ondoriozko tasari, "Entitate multzoa" indizeari ezarritako tarte bera ezarriko litzaioke eta hura kalkulatzeko adierazitako modu berean lortuko litzateke.

Kreditu Entitateek honako konpromiso hau hartu dute bere gain: Hitzarmen honen esparruan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak baimendutako mailegu kualifikatuak jaso dituzten mailegariei jakinaraztea beren maileguetan interes-tasek izan ditzaketen aldaketak, maileguaren kontratuan jasotako zehaztapenen arabera.

3- Hitzarmena izenpetu duten Kreditu Entitateek komisio bakarra ezarri ahal izango dute etxebizitza bakoitzeko, gehienez ere maileguaren tronkoaren 100eko 0,25ekoa eragiketa osorako.

Ezin izango da berariaz erabakitakoaz beste komisio, zigor edo tasazio-kosturik jaso, ezta, Hitzarmen honetan jasotzen diren baldintzetan, aurretiazko amortizazioak eginda ere, ez ordaintzea edo berandu ordaintzea gertatzen denean izan ezik.

Etxebizitza eskuratzeko finantza-neurriak eskatu aurretik egindako tasazioagatik jasotako zenbatekoa, hala behar balitz, komisio horren barruan dagoela joko da.

4- Bermeak Finantza Entitateak ezarriko ditu.

**SEIGARREN KLAUSULA.- INTERES-TASEN SUBSIDIAZIOA**

6.1.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, finantzazioa onartzeari buruzko administrazio-ebazpenean ezarritakoa betez eta kasu bakoitzean ezar daitekeen araudiaren arabera, ondokoa subsidiatzeko konpromisoa hartu du bere gain: sei hileko likidazio-aldi bakoitzean, hitzarmenaren tasan (lehenengo urteko hasierako tasan edo sei hiletik sei hilera berrikus daitekeen tasa aldakorrean) amortizatu gabe dagoen kapitalak sorturiko interesen eta Kreditu Entitateek emandako maileguen onuradunari subsidiatutako benetako tasan kitatutako interesen arteko aldea.

Subsidioa benetan erabilitako zenbatekoen arabera kalkulatuko da.

6.2.- Subsidioa izateko eskubidedunak, eta subsidiatutako baldintzak eta tasak honako hauek izango dira:

**a) Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, errentan emateko.**

Errentan emateko, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen baldin badira: 100eko 1’99. (Urteko benetako interes-tasa: 100eko 2).

**b) Etxebizitza sozialak sustatzea, errentan emateko.**

Etxebizitza sozialen errentarekin errentamenduan lagatzeko sustatzen direnean, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: 100eko 0. (Urteko benetako tasa: 100eko 0).

**c) Etxebizitza libreak sustatzea, errentan emateko.**

1.- Errentan emateko, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: 100eko 1,99 (urteko benetako interes-tasa: 100eko 2).

2.- Errentan emateko, etxebizitza sozialak sustatzea, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: 100eko 0 (urteko benetako tasa: 100eko 0).

**d) Etxebizitza erosteko eragiketak, errentan emateko.**

1.- Errentan emateko, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: onuradunarentzat ateratzen den urteko tasa nominala 100eko 1,99 izango da (urteko benetako tasa: 100eko 2).

2.- Errentan emateko, etxebizitza sozialak sustatzea, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: onuradunarentzat ateratzen den urteko tasa nominala 100eko 0 izango da (urteko benetako tasa: 100eko 0).

**e) Etxebizitza sozialak lagatzea errentamendu babestuan jartzeko**

Etxebizitza sozialak lagatzea errentamendu babestuan jartzeko, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: 100eko 0 (urteko benetako tasa: 100eko 0).

**f) Babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea birgaitze-jarduketen bidez, errentan jartzeko.**

1.- Errentan emateko, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: onuradunarentzat ateratzen den urteko tasa nominala 100eko 1,99 izango da (urteko benetako tasa: 100eko 2).

2- Errentan emateko, etxebizitza sozialak sustatzea, betiere etxebizitzen xedeari eutsi eta dagokion araudian adierazitako baldintzak betetzen direnean: onuradunarentzat ateratzen den urteko tasa nominala 100eko 0 izango da (urteko benetako tasa: 100eko 0).

**g) Lurzoru-arloko jarduketa babesgarriak.**

1.- Urbanizatutako lurzorua kostu-bidez erostea, lurzorua urbanizatzea, eta lurzorua kostu-bidez erostea eta berehala urbanizatzea: urteko tasa nominala 100eko 1,99koa (urteko benetako tasa: 100eko 2).

2. Lurzorua kostu-bidez erostea, ondare publikoak eratzeko, lurzoruaren erregimenari eta hiri-antolaketari buruz indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera: urteko tasa nominala 100eko 2,97koa (urteko benetako tasa: 100eko 3).

Subsidiazio hau 4 urteko epean mantenduko da, bosgarren urtetik aurrera baliogabetu egingo da subsidiazioa.

6.3.- Klausula honetan ezarritako subsidiazioak honako ezaugarri hauek izango ditu, interes-tasa aldakorrei dagozkienez:

a) Seihileko eguneratzearen ondorioz, eguneratutako tasa hasieran maileguaren lehenengo urterako kontratatua baino txikiagoa izango balitz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak tasa subsidiatua hasierako baldintzetan gordeko du aipatutako eguneratze horrek mailegariarengan inongo eraginik izan gabe. Subsidiazioa eten egingo da eguneratutako tasa tasa subsidiatuaren parekoa edo txikiagoa den aldian.

b) Sei hileko eguneratzea dela-eta, eguneratutako tasa maileguaren lehenengo urterako hasieran kontratatua baino handiagoa bada, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak tasa subsidiatua hasierako baldintzetan gordeko du, eta ez du eraginik izango baldin eta eguneratutako tasa hori urteko benetako tasa, 100eko 10eko sei hileko mugaegunak dituena, gainditzen ez duen; bestela balitz, gehienezko tasa horretatik gorako gehikuntzek eragina izango lukete interes-tasa subsidiatuan.

6.4.- Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean eta mailegu kualifikatuen administrazio-baimenarekin batera, horien interes-tasa administrazio-ebazpenaren bidez onartu den subsidiatutako tasaren parekoa edo txikiagoa bada, aipatutako subsidiazioa eten egingo da eta baimena ematean indarrean dagoen interes-tasan amortizatuko da.

**ZAZPIGARREN KLAUSULA.- FORMALIZAZIOEN JAKINARAZPENA**

7.1.- Hilabeteko bakoitzaren lehen hamar lanegunen barruan, Kreditu Entitateek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari aurreko hilabetean formalizatutako maileguen berri emango diote.

Jakinarazpen hori posta elektroniko bidez edo euskarri magnetikoan 3 1/2"-ko disketetan egingo da, Hitzarmen honen III. Eranskinean (Maileguak formalizatzeko diskete-formatua) azaldutako betekizunen arabera. Dena dela, jakinarazpena paperean ere egin ahal izango da, aipatutako III. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera (Maileguen formalizazio-jakinarazpena), baldin eta aurreko hilabetean egindako mailegu-kopurua 25 baino gutxiago izanez gero.

7.2.- Kreditu Entitateek maileguaren eskritura publikoetan eta polizetan honako hauek sartuko dituzte: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hitzarmen honen VI. eranskinean agertzen diren zuzeneko laguntza ekonomikoei dagozkien zenbatekoen bermeari buruzko klausulak.

7.3.- Sustatzaileentzako mailegu kualifikatuen kontratuetan, eta dagozkien eskritura publikoetan eta polizetan, etxebizitza bakoitzari dagokion mailegu-atalaren baldintza suntsitzailetzat hauxe joko da: eroslearen elkarbizitza-unitateak kasu bakoitzeko legezko gehiengoa baino urteko diru-sarrera ponderatu handiagoak izatea. Horrek eskuratutako kopurua eta dagozkion legezko interesak itzultzea eragingo du.

7.4.- Formalizazioak jakinaraztea beharrezko baldintza izango da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak subsidioa ordain dezan.

**ZORTZIGARREN KLAUSULA.- ESKURATZEAK ETA AMORTIZAZIOAK**

8.1.- Honela eskuratuko dira maileguei dagozkien zenbatekoak:

a) Sustatzeko maileguetan, obrak ziurtatu ahala eta ziurtatutako obren kopuruaren arabera, aurkeztutako obren egiaztapenen zenbateko osoa ordainduz, kasuan-kasuan aplikagarri den legerian ezarritakoa betez, eta Kreditu Entitatearen bermea behin gordez gero.

b) Erosteko maileguetan, mailegua formalizatu bezain laster eta Kreditu Entitatearen bermea behin gordez gero.

c) Birgaitzeko diren maileguetan, burututako lanen ziurtagiriok aurkeztutakoan eskuratuko da mailegua, ziurtagiriak Lurralde Ordezkaritzak onartuta (horien eredua IV. Eranskinean dago) eta Kreditu Entitateen bermea behin gordez gero.

Maileguak gabealdia izaten badu, epe horretan era jarraituan eskura liteke eta 5 egiaztapenetaraino gehienez ere. Maileguak ez badu gabealdirik, eskuraketa bakarra egingo da, mailegua formalizatu eta berehala, egiaztapen-kopurua kontuan hartu gabe.

d) Lurzoru-arloko jarduketa babesgarrietarako maileguetan, eskuraketa inbertsioaren garapenaren arabera egingo da, lurzoruaren erosketaren eta egindako obraren ziurtagiriak aurkeztuta.

8.2.- Hitzarmen honen eraginpean emandako mailegu guztiei dagokienez, Kreditu Entitateek honako konpromiso hau hartu dute: aurretiazko amortizazioak, hala guztizkoak nola partzialak, hau da, amortizazio-epea bukatu baino lehenago egiten direnak, onartzea, mailegariak hala eskatzen badu; aurreko horrengatik ezin izango da inolako komisio edo zigorrik ezarri.

Aurretiazko amortizazioak bateraezinak diren honako bi era hauetan bakarrik egin daitezke:

a) Amortizatzeko zenbatekoak oso-osorik erabiliko dira oraindik geratzen den tronkoa murrizteko, kasu honetan hasiera batean jarritako epe bera gordez eta kuota berria kalkulatuz.

Kuota berri hau kalkulatzea hurrengo seihileko likidazioan gauzatuko da, aurretiazko amortizazioa gertatu den aldiaren amaieran geratu den saldoa kontuan hartuta.

b) Amortizatzeko zenbatekoak oso-osorik erabiliko dira zorretako amortizazio-epea murrizteko, kasu honetan hasiera batean jarritako kuota bera gordez; murrizketa itundutako seihilekoetako azkenetik hasiko da.

c) Seihileko likidazio-aldi batean behin baino ezin daiteke egin aurretiazko amortizazioa.

8.3.- Hilabetearen lehen hamar lanegunen barruan, Kreditu Entitateek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari aurreko hilabetean formalizatutako maileguen saldo bizian izandako aldaketen berri emango diote.

Aldaketa hauen barne hauexek egongo dira:

a) Kreditu-eskuraketak.

b) Aurretiazko amortizazioak, saldo bizian zein amortizazio-epean murrizketa eraginez gero.

Jakinarazpen hori posta elektroniko bidez edo euskarri magnetikoan egingo da, 3 1/2"-ko disketetan V. eranskinean (Subsidiazioen likidazio eta maileguen mugimendurako diskete-formatua) jasotako zehaztapenen arabera. Halere, aldaketok paperean ere jakinarazi ahal izango dira, aipatutako V. eranskinean agertzen den ereduaren arabera (Maileguen saldo bizian izandako aldaketak), baldin eta aldaketa horiek eraginik ez duten 25 mailegutan baino gehiagotan.

Interes-tasen subsidioen likidazioen berri emateko, Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzara bidalitako jakinarazpenetan, Kreditu Entitatearentzako interes-tasa onuradunarentzako interes-tasa baino txikiagoa denean, bi balioak adierazi beharko dira nahitaez.

Hitzarmenaren interes-tasa berrikusia subsidiatutako interes-tasa baino txikiagoa denean, subsidioen sei hileko likidazioa zero zenbatekoa duela bidali beharko da.

8.4.- Maileguen saldo bizian egon daitezkeen aldaketak jakinaraztea ezinbesteko betekizuna izango da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak subsidiazioa ordain dezan.

**BEDERATZIGARREN KLAUSULA.- SUBROGAZIOAK**

9.1.- Sustatzaileari emandako maileguan eroslearen subrogazioa egin aurretik, Kreditu Entitateek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari subrogazio-baimena eskatuko diote, Laugarren Klausulan ezarritakoaren arabera.

9.2.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak subrogazioa baimenduko du eraketa berrikoak diren maileguen era eta epe berberetan.

9.3.- Sustatzaileari emandako maileguetan etxebizitzen erosleen subrogazioa hasierako maileguaren finantza-ezaugarriekin erabat ados etorriko da. Hala ere, etxebizitzaren eroslearen mailegua baimendu denean indarrean dagoen interes-tasa izango da subrogatutako maileguen interes-tasa.

**HAMARGARREN KLAUSULA.- EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK EMANDAKO ZUZENEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN IZAPIDEAK EGITEA**

10.1.- Hitzarmen honen aplikazio-esparruaren barruan jasotzen diren jarduketa babesgarriak laguntzeko titularrei administrazio-ebazpenenaren bidez zuzeneko laguntza ekonomikoak emanez gero, subsidioak baimentzeko eta fondo galdura emandako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren adostasuna behar izango da, aurretik Kreditu Entitateek eskatuta.

Subsidioen baimen-eskabidea posta elektroniko bidez edo euskarri magnetikoan egingo da, 3 $^{1/2}$"-ko disketetan II. eranskinean (Maileguak eta subsidioak onesteko diskete-formatua) azaldutako zehaztapenen arabera. Hala ere, paperean ere (D-23; Maileguak eta subsidiazioak onesteko oinarri-dokumentua) eskatu ahal izango da, aipatutako II. eranskinean azaldutako ereduaren arabera, baldin eta mailegu-kopurua 25 baino handiagoa izan ezean.

Diru-laguntzak baimentzeko eskabidea posta elektroniko bidez edo euskarri magnetikoan egingo da, 3 $^{1/2}$"-ko disketetan II. eranskinean (diru-laguntzak onesteko diskete-formatua) azaldutako zehaztapenen arabera. Hala ere, paperean ere (D-24; diru-laguntzak baimentzeko oinarrizko agiria) eskatu ahal izango da, aipatutako II. eranskinean azaldutako ereduaren arabera, baldin eta diru-laguntzen 25 baino handiagoa izan ezean.

Subsidioak baimentzeko eskabideekin batera, hitzarmen honen Laugarren Klausulan ezarritako dokumentazio bera aurkeztu beharko da eta dokumentazioaren izapideak ere klausula horretan adierazitakoak izango dira.

Diru-laguntzak baimentzeko oinarrizko agiriarekin batera, honako agiri hauek erantsiko dira:

- Errentan emateko den etxebizitza erosteko diru-laguntzen kasuan, etxebizitzaren salerosketako eskritura publikoaren eta errentamendu-kontratu onetsiaren fotokopia.
- Babestutako errentamenduengatik emandako diru-laguntzen kasuan, onetsitako errentamendu-kontratuaren fotokopia.
- Higiezinak eta etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzen kasuan, obren egiaztapen partzialaren edo azken egiaztapenaren fotokopia.
- Erabilitako etxebizitza libreak erosteko diru-laguntzen kasuan, etxebizitzaren eskritura publikoaren fotokopia.

.- Erosteko edo birgaitzeko zuzeneko laguntza ekonomikoak jaso dituzten etxebizitzak edo merkataritza-lokalak ezin izango dira ez osorik ez partez inter vivos laga inolako tituluren bidez

salerosketako eskritura publikoa ematen denetik zenbatzen hasi eta 10 urteko epearen barruan, ez eta obra-amaierako ziurtagiria ematen denetik zenbatzen hasi eta 5 urteko epearen barruan ere, ez bada aldez aurretik jasotako laguntzen itzulketa egiaztatzen, itzultzerakoan eguneratuta eta dagokion legezko interesarekin. Erabiltzeko mugatze horretatik salbu geratzen dira higiezinetako elementu komunak ukitzen dituzten birgaitzeak.

.- Zuzeneko laguntza ekonomikoen onuradunak hauek ematen dituen administrazio-ebazpena aurkeztu beharko du dagokion Jabetza Erregistroan, eta bertan, administrazio-dokumentu hori ikusi ondoren, hipoteka-legeriaren arabera bidezkoa den jabariaren erabilera-mugapenaren erregistro-inskribapena praktikatuko da.

.- Laguntza eman duen Administrazioak laguntzak ematearen ebazpena Jabetzaren Erregistroan aurkeztu dela frogatzen duen dokumentua jasotzen duenean, fondo galdurako diru-laguntzaren ordainketa egitea aginduko du. Era berean, mailegua eman behar duen Finantza Entitateak kontratua sinatu ahal izango du administrazio-agiri hori aurkeztu ondoren.

10.2.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, dokumentazio osoa jasotzen duenetik hamabost laneguneko epearen barruan, honako konpromiso hau hartu du bere gain: Kreditu Entitateari arrazoiz jakinaraztea zuzeneko laguntza ekonomikoak baimendu edo ukatu dizkion eta fondo galdurako diru-laguntzei dagozkien ordainketa-aginduak egitea. Epe hori bukatuz gero berariazko jakinarazpenik jaso ezik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak laguntza ekonomikoak ukatu egin dituela joko da.

Eskabidean adierazitako kontuan ahalik eta lasterren sartuko dituzte jasotako diru-laguntzak Kreditu Entitateek, eskura dituzten baliabide teknikoen arabera.

**<u>HAMAIKAGARREN KLAUSULA.- SUBSIDIOAREN LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA</u>**

11.1.- Lehenengo likidazioa, mailegua egiten denetik sei hilabetera gauzatuko da, eskuraketak noiz egiten diren kontuan hartu gabe.

Hilabete bakoitzaren lehen hamar lanegunen barruan eta saldoen formalizazio eta aldaketen jakinarazpenekin batera, Kreditu Entitateek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari honako hau jakinaraziko diote: aurreko hilabetean mugaeguna izan duten maileguei dagozkien sei hileko interesen subsidioaren likidazioa.

Salbuespenez, mailegua ezereztea eragiten duten aurretiazko amortizazioetan, ezereztea egin den hilabetearen hurrengoan jakinaraziko da subsidioen likidazioa.

Jakinarazpen hori posta elektroniko bidez edo euskarri magnetikoan egingo da, 3 1/2"-ko disketetan V. eranskinean (Subsidioen likidazio eta maileguen mugimendurako diskete-formatua) jasotako zehaztapenen arabera. Hala ere, jakinarazpena paperean ere egin ahal izango da, V. eranskinean agertzen den ereduaren arabera (Subsidioen likidazioa), baldin eta kasu horretan dauden maileguen kopurua 25 baino txikiagoa izanez gero.

11.2.- Kreditu Entitateei honela ordainduko zaizkio likidazioak: interesen obligazioaren mugaegunaren hurrengo hilabetearen 10eko balio-dataz, baldin eta subsidio horren erreklamazioa Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean egonez gero, klausula honen 1. zenbakian ezarritakoaren arabera.

Salbuespenez, Kreditu Entitateek eskatutako likidazioak zuzenak ez badira, likidazioa zuzendu diren hilabetearen hurrengoaren 10eko balio-dataz ordainduko da, maileguaren sei hilekoa kontuan hartu gabe.

Era berean, maileguak aurretiaz ezereztatuz gero, mailegua ezereztatu den aldiari dagokion likidazioa ezereztatu den hilabetearen hurrengoaren 10eko balio-dataz ordainduko da, maileguaren sei hilekoa kontuan hartu gabe.

11.3.- Klausula honen lehenengo idatz-zatian adierazten den data berean, Kreditu Entitateek Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari honako hauek jakinaraziko

dizkiote: onuradunaren betebeharrak ez betetzetik aurreko hilabetean deuseztatutako maileguak, subsidioen ordainketa etetekotan. Kasu horretan, onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoaren Diruzaintza Nagusiari interes-tasaren subsidiazio modura ordura arte jasotako zenbatekoak ordainduko dizkio. Betebehar hori bermatzeko, maileguaren bermeak ezarritako betebeharren artean jasoko da, eta Kreditu Entitateek konpromiso hau hartuko dute bere gain: mailegariaren zorren gaineko bermea egiteagatik jasotako gaindikina subsidioa itzultzeko erabiltzea, jasotako subsidioen zenbatekora heldu arte.

11.4.- Kreditu Entitateek igorritako likidazioa onetsi ondoren, likidatutako aldian saldo bizian izandako aldaketarik ez da konputatuko, kasu horietan aldaketaren balio-data likidatutako azken mugaeguna izango da.

**HAMABIGARREN KLAUSULA.- BANKU-DESKONTURAKO ERAGIKETAK**

12.1.- Kreditu Entitateek honako konpromiso hau hartu dute: obraren esleipendun diren eraikitzaileei banku-deskonturako eragiketak ematea, eraikitzaile horiek dagokien deskonturako obra-egiaztapenak aurkezten badituzte, betiere ondoren zehazten diren jarduketa babesgarrietarako eta kasuan-kasuan ezar daitekeen legeriaren arabera.

Honako hauek izango dira jarduketa babesgarriak:

- Babes ofizialeko etxebizitzen sustapena.
- Lurzoruaren urbanizazioa.

Banku-deskonturako eragiketek sortutako interesak sustatzaileak ordainduko ditu.

12.2.- Banku-deskonturako eragiketa hauei, hitzarmen honetan sustatzaileentzako maileguei buruz xedatutako guztia ezar dakieke, honako berezitasun hauek kontuan hartua:

.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak deskonturako eragiketek sortutako interesak besterik ez du subsidiatuko.

- Obra amaitutakoan, hipoteka-maileguak gauzatuko dituzte sustatzaileak eta Kreditu Entitateak. Sustatzaileari egindako gainerako maileguek dituzten betekizun eta muga berberak bete beharko dituzte hipoteka-mailegu horiek, honakoak salbuetsita:

  - Gehienezko epea: 23 urtekoa, eraikitzaileari egiten zaion lehenengo finantzazio-eragiketa formalizatzen denetik.
  - Gehienezko gabealdia: 3 urtekoa, eraikitzaileari egiten zaion lehenengo finantzazio-eragiketa formalizatzen denetik.
  - Mailegu kualifikatuaren interes-tasa: mailegua baimentzen denean indarrean dagoena, eraikitzailearen eragiketan ezarritako mugaegun eta gainerako aldagaiak mantenduta.

- Deskonturako eragiketak obrak bukatu arte luzatuko dira eta gehienez ere hiru urteko epea izango dute, formalizatzen direnetik.

- Eraikitzailearentzako finantzazio-eragiketa eta sustatzailearentzako mailegua denboran bat etorriz gero, bietan eskuratutako zenbatekoen batuketa ken sustatzailearentzako maileguan egindako amortizazioak, ez da legez ezarritako finantzazioaren gehienezko zenbatekoa baino handiagoa izango.

- Sustatzaileak edozein unetan eraikitzaileari finantzatzeko eragiketa bere diruzaintzaren kargura guztiz edo partez amortizatu ahal izango du, inolako komisiorik gabe, betiere finantzaketa-kontratuan aurreikusita badago edo eraikitzaileak formalki onartzen badu.

- Eragiketak onartzeko eskabideak, horien formalizazioen eta saldoen aldaketen jakinarazpenak, subsidioen onarpenak eta likidazioak, baita diru-laguntzen onespenak ere, hitzarmen honen eranskinetan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

12.3.- Babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruz indarrean dagoen araudiaren ondorioetarako, 2005eko ekitaldian formalizatuko diren deskontu-lerroen bidezko finantza-eragiketen zenbatekoa ez da 135.000.000 eurotik gorakoa izango.

**HAMAHIRUGARREN KLAUSULA.- LURRALDE-ESPARRUA ETA IRAUNALDIA**

13.1.- Hitzarmen honen lurralde-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da, eta izenpetzen denetik 2005eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

13.2.- Aurreko idatz-zatian adierazitako epe hori bukatuta, eta sinatzaileek hitzarmen honen amaieraren iragarpena idatzirik aurkeztu ezean, hitzarmena luzatu egingo da, eta horretarako dagokion protokoloa sinatuko da. Protokolo hau izenpetzen ari den bitartean, hitzarmen hau ondorio guztietarako luzatutzat joko da.

Luzapena egiteko protokoloa indarrean egongo da beste lankidetza-hitzarmen bat izenpetu arte, baina ezin izango du 2006ko abenduaren 31ko epemuga gainditu.

13.3.- Hitzarmen hau izenpetu dutenetatik edonork eska dezake hitzarmena berrikusteko testuinguruaren egoeran aldaketa garrantzitsuak egonez gero.

**HAMALAUGARREN KLAUSULA.- INFORMAZIOA**

14.1.- Kreditu Entitateek, Hitzarmen honetan jasotzen diren gainerako informazio-beharkizunak betetzeaz gain, honako konpromiso hau hartu dute: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari ematea finantzazio-programen garapenaren segimendurako eta kontrolerako sailak eskatzen dion informazioa.

14.2.- Kreditu Entitateek honako konpromiso hau ere hartu dute : Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari igortzea sailak eska diezazkiekeen formalizazio-eskrituren fotokopiak, baita maileguei buruz eska daitezkeen beste edonolako agiri eta datuak ere.

14.3.- Kreditu Entitate sinatzaileek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari pisuen tasazioei buruzko informazioa igortzeko borondatea agertu dute; tasazio horiek Lege Hipotekarioa betez egingo dira, hitzarmenaren alderdiek adostutako baldintzen arabera.

*Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.*

- "Entitate multzoa" erreferentzia-tasaren 100eko 89, EURIBOR erreferentzia-tasa baino txikiagoa izango balitz, azken EURIBOR erreferentzia-tasa hau aplikatuko da. *Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.*

- *"Entitate multzoa" erreferentzia-tasaren 100eko 89, EURIBOR erreferentzia-tasa gehi 1,25 baino handiagoa izango balitz, azken EURIBOR erreferentzia-tasa gehi 1,25 hau aplikatuko da. Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.*

"Entitate multzoa" desagertu edo Altxortegia eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak onartu ezean, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak 1989ko abenduaren 5eko Ebazpenaz definitu zuen eta Banco de Españak hilero argitaratzen duen "Zor publikoaren errentagarritasuna. Indize eraginkorra" bihurtuko da ordezko erreferentzia-tasa. Kasu honetan, berrikusitako tasa kalkulatzeko ezar daitekeen koefizientea 100eko 89koa izango da.

*Ondoriozko tasari, "Entitate multzoa" tasari ezarritako tarte bera ezarriko litzaioke eta aipatutako modu berean ere lortuko litzateke.*

*Subsidiazioak honako ezaugarri hauek izango ditu interes-tasa aldakorrei dagokienez:*

*a) Seihileko eguneratzearen ondorioz, eguneratutako tasa hasieran maileguaren lehenengo urterako kontratatua baino txikiagoa izango balitz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak tasa subsidiatua hasierako baldintzetan gordeko du aipatutako eguneratze horrek mailegariarengan inongo eraginik izan gabe. Subsidiazioa eten egingo da eguneratutako tasa tasa subsidiatua bezalakoa edo txikiagoa den aldian.*

*b) Sei hileko eguneratzea dela-eta, eguneratutako tasa maileguaren lehenengo urterako hasieran kontratatua baino txikiagoa bada, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak tasa subsidiatua hasierako baldintzetan gordeko du, eta ez du eraginik izango baldin eta eguneratutako tasa hori urteko benetako tasa, 100eko 10eko sei hileko mugaegunak dituena, gainditzen ez duen; bestela balitz, gehienezko tasa horretatik gorako gehikuntzek eragina izango lukete interes-tasa subsidiatuan.*

**Laugarrena.-** Zordunak finka hipotekatuaren zaintza egokira, kargatzen duten kontribuzioak eta zergak epe barruan ordaintzera eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, honek hala eska baleza, ordainketok eginak direneko ordainagiriak erakustera behartzen du bere burua.

*Halaber, etxebizitza errentan jartzeko erabili behar du, gutxienez hamabost urteko epean, lehen errentamendu-kontratua onartzeko aurkezten den egunetik aurrera kontatzen hasita. Kobratu beharreko errenta gehienez ere babes ofizialeko etxebizitzena edo, hala badagokio, etxebizitza sozialena izango da.*

**Bosgarrena.-** *Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hipoteka-maileguaren interes-tasen subsidiazioari utzi diezaioke honako kasu hauetan***:**

*a) Maileguaren zenbatekoa emakidarena ez den beste edozein helburu betetzeko erabiltzen bada.*

*b) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkeztutako edozein dokumentu faltsutzea, etxebizitza erosteko diru-laguntza eskariari dagokionez.*

*c) Zordunak, babes ofizialeko etxebizitzei buruzko legeriak, honelako laguntzak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko legeriak, edo eskritura honen bidez hartzen dituenak ezartzen dizkioten betebeharrak beteko ez balitu.*

*d) Hipotekagai den finkak babes ofizialeko etxebizitza izaera galduko balu.*

*e) Babespeko errentamendurako den etxebizitza erosteko kasuan, etxebizitzaren salerosketaren notario-eskritura egiten den egunetik gutxienez hamabost urteko epea bukatu aurretik erabilpen-aldaketa gertatuz gero, eta etxebizitza aipatutako hamabost urteko epearen barruan gutxienez guztira urte bateko aldian (edo bi ez jarraian hamabost urteren barruan) errentan eman gabe dagoenean.*

**Seigarrena.-** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eskatu ahal izango du, bere kabuz, ............................................. Kutxak/Bankuak emandako maileguetarako *diru-laguntza eta subsidio* gisa emandako zenbatekoen eta horien interesen itzulketa, aurreko klausuletan jasotako kasuak direla-eta.

**1- BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA SALTZEKO EDO NORBERAK ERABILTZEKO**

**2- BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ERRENTAN JARTZEKO**

**3- ETXEBIZITZA LIBREEN SUSTAPENA BABESPEKO ERRENTAN JARTZEKO**

**4- ETXEBIZITZA SOZIALEN SUSTAPENA BABESPEKO ERRENTAN JARTZEKO**

**5- BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA BIRGAITZEAREN BIDEZ**

**Oharra :** Etzanaz dagoen testua aldakorra da jarduketa-motaren eta Administrazioak subsidiazio eta diru-laguntzaren emakidaren edo ez emakidaren arabera.

II.- .................................................................. Jn./And.ak eskatu eta jaso egin duela .................................................... Kreditu Entitatetik mailegu *subsidiatua, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduak* arautua eta Kutxaren/Bankuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean sinatutako finantza-lankidetzarako hitzarmenaren arabera, eskritura honek formalizatzen duen mailegua, ondoko baldintzen ildotik.

*III.- Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu eta jaso egin duela diru-laguntza pertsonala, fondo galdura.*

**BALDINTZAK**

**Lehenengoa**.- .................................. Kutxak/Bankuak emakidatu eta eman egiten dio mailegu *subsidiatua,* ....................................... EUROkoa, ............................................Jn./And.ari, *babes ofizialeko etxebizitzen, etxebizitza sozialen edo etxebizitza libreen sustapenerako edo birgaitzearen bidezko sustapenerako,* mailegu hori onartu eta jaso egiten du, ondoren adierazten diren modu, baldintza eta epean itzultzeko beharra hartuz.

**Bigarrena.-** Mailegu *subsidiatua*, 20 urteko eperako formalizatuko da, gehi 3 urteko gehienezko gabealdia, eta amortizazio-jarduera konstanteen bidez egingo da horren amortizazioa, *kasu bakoitzean interes-tasa subsidiatuaren arabera kalkulatuak,* sei hileko epe-mugaz.

Itundutako epea gorabehera, zordunak amortizazio aurreratuak egin ditzake, hala saldo bizia nola amortizazio-epea murrizteko. *Kasu honetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak subsidiazio gisa ordaindu beharreko zenbatekoa murriztu egingo da egindako amortizazio aurreratua dela-eta kapitala murrizten den neurri berean*.

Gabealdia, hiru urtekoa gehienez ere, bukatu egingo da, hala salerosketaren edo esleipenaren notario-eskritura egitean, nola behin betiko kalifikazioa ematean, banako autosustapena edo errentarako diren etxebizitzen sustapena bada.

**Hirugarrena.-** Zordunak kontratu honetan formalizatzen den mailegu *subsidiatuari* dagozkion betebehar guztiak epe barruan betetzen dituen bitartean, *honako hau izango da urteko benetako interes-tasa aplikagarria:*

*A).-finantza-lankidetzarako hitzarmenean finkatutako interes-tasa;*

*B).- edo Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ordaindutako subsidiazioaren hasierako diru-zenbatekoa, Hitzarmenean finkatutako interes-tasarainoko aldea osatzen duena, zordunak urtean ordaindu beharreko benetako interes-tasa %......... izateko beharrezkoa dena izango da.*

Urte beteko epe hori igarota, sei hiletik sei hilera eguneratuko da interes-tasa. Aplikagarri den tasaren berrikuspen hori maileguaren iraupenaren seihileko bakoitzean egingo da, ondorioak izaten hasita hurrengo seihileko lehenengo likidazioan (3., 4., 5., 6.,... epe-mugak), mailegua egin den egunetik zenbatzen hasita.

Honako hau izango da berrikusitako tasa:

- “Entitate multzoa*” (Banco de Españako Estatistika Buletinean argitaratzen den Altxortegi eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren 1991ko otsailaren 4ko Ebazpenean definituta hain zuzen) erreferentzia-tasaren 100eko 89 EURIBOR erreferentzia-tasaren urte batera eta EURIBOR urte batera gehi 1,25 gehitzetik ateratako tartean egonez gero, seihileko 3. likidazioaren eta ondorengoen berrikuspen irizpidea,* “Entitate multzoa*” erreferentzia-tasaren 100eko 89 izango da.*

*Aurreko idatz-zatian adierazi den* “Entitate multzoa” *erreferentzia-tasa honelaxe lortuko da: eskuragarri den informazioarekin azken hiru hilabeteetako batez bestekoa (abuztua, iraila eta urria, aurtengo lehenengo seihilekoan onartzen diren maileguetarako; otsaila, martxoa eta apirila, bigarren seihilekoan onartzen diren maileguetarako) hirugarren hilabeteari dagokion balio bikoitza haztatuz.*

Halaber, EURIBOR erreferentzia-tasa hori, Banco de Españak hilero argitaratzen duena, “Entitate multzoa” erreferentzia-tasa ateratzeko erabili den aipatutako era berean lortuko da.

Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

- “Entitate multzoa” erreferentzia-tasaren 100eko 89, EURIBOR erreferentzia-tasa baino txikiagoa izango balitz, azken EURIBOR erreferentzia-tasa hau aplikatuko da. Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

- “Entitate multzoa” erreferentzia-tasaren 100eko 89, EURIBOR erreferentzia-tasa gehi 1,25 baino handiagoa izango balitz, azken EURIBOR erreferentzia-tasa gehi 1,25 hau aplikatuko da. Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

“Entitate multzoa” desagertu edo Altxortegia eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak onartu ezean, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak 1989ko abenduaren 5eko Ebazpenaz definitu zuen eta Banco de Españak hilero argitaratzen duen “Zor publikoaren errentagarritasuna. Indize eraginkorra” bihurtuko da ordezko erreferentzia-tasa. Kasu honetan, berrikusitako tasa kalkulatzeko ezar daitekeen koefizientea 100eko 89koa izango da.

Ondoriozko tasari, “Entitate multzoa” tasari ezarritako tarte bera ezarriko litzaioke eta aipatutako modu berean ere lortuko litzateke.

*Subsidiazioak honako ezaugarri hauek izango ditu interes-tasa aldakorrei dagokienez:*

*a) Seihileko eguneratzearen ondorioz, eguneratutako tasa hasieran maileguaren lehenengo urterako kontratatua baino txikiagoa izango balitz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak tasa subsidiatua hasierako baldintzetan gordeko du aipatutako eguneratze horrek mailegariarengan inongo eraginik izan gabe. Subsidiazioa eten egingo da eguneratutako tasa tasa subsidiatua bezalakoa edo txikiagoa den aldian.*

*b) Sei hileko eguneratzea dela-eta, eguneratutako tasa maileguaren lehenengo urterako hasieran kontratatua baino txikiagoa bada, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak tasa subsidiatua hasierako baldintzetan gordeko du, eta ez du eraginik izango baldin eta eguneratutako tasa hori urteko benetako tasa, 100eko 10eko sei hileko mugaegunak dituena, gainditzen ez duen; bestela balitz, gehienezko tasa horretatik gorako gehikuntzek eragina izango lukete interes-tasa subsidiatuan.*

**Laugarrena.-** Babes ofizialeko etxebizitzen behin betiko kalifikazioa ukatuko balitz, eroslerik ez dagoelako edo erosleak egonik, maileguaren emakida zuzena edo salerosketa kontratuaren ezespena

aukeratzen badute haien aldeko espedientearen birgaitzerik gabe, mailegua mugaeguneratuta geratuko da emandako zenbatekoarekin eta sustatzailearen kontura baino ez da izango.

Sustatzaileari egozgarria zaion arrazoia dela-eta, behin betiko kalifikazioa ukatzen bada, beti ere erosleek espedientearen birgaitzea eskatuz gero, erosleen subrogazioa ekarriko du sustatzailearentzako maileguan, hark hasieran itundutako baldintzen arabera.

**Bosgarrena.-** Zordunak finka hipotekatuaren eta eraikitzen dituen eraikinen zaintza egokira behartzen du bere burua, eta Erakunde ofizial aginpidedunek onartutako plan eta egitasmoen arabera .... hileko epearen barruan bukatuta edukitzeko konpromisoa hartzen du, bai eta kargatzen dituzten kontribuzioak eta zergak epe barruan ordaintzera eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, honek hala eska baleza, ordainketok eginak direneko ordainagiriak erakustera ere.

Era berean, bere burua behartzen du aipatutako finkak ez alokatzera ez saltzera, inolaz ere bizikien artean eskuz aldatu edo kargatzera, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren baimenik gabe, mailegua erabat kitatu arte.

**Seigarrena.-** *Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hipoteka-maileguaren interes-tasen subsidiazioari utzi diezaioke honako kasu hauetan:*

*a) Maileguaren zenbatekoa emakidarena ez den beste edozein helburu betetzeko erabiltzen bada.*

*b) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkeztutako edozein dokumentu faltsutzea, etxebizitza sustatzeko diru-laguntza eskariari dagokionez.*

*c) Babes ofizialeko etxebizitzak edo errentan jartzeko etxebizitza libreak badira, erabilpen-aldaketa 15 urte igaro aurretik gertatzen denean, behin betiko kalifikazioa ematen denetik edo bisaturiko lehenengo errentamendu- kontratua ematen denetik kontatzen hasita, hurrenez hurren.*

*d) Zordunak, babes ofizialeko etxebizitzei buruzko legeriak, honelako laguntzak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko legeriak, edo eskritura honen bidez hartzen dituenak ezartzen dizkioten betebeharrak beteko ez balitu.*

*e) Sustatutako etxebizitzek babes ofizialeko etxebizitza izaera galduko balute.*

**Zazpigarrena.-** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eskatu ahal izango du, bere kabuz, ............................................ Kutxak/Bankuak emandako maileguen interes-tasetarako *diru-laguntza eta subsidio* gisa emandako zenbatekoen eta horien interesen itzulketa, aurreko klausuletan jasotako kasuak direla-eta.

# ETXEBIZITZA BIRGAITZEA

**Oharra :** Etzanaz dagoen testua aldakorra da jarduketa-motaren eta Administrazioak subsidiazio eta diru-laguntzaren emakidaren edo ez emakidaren arabera.

II.- ..................................................................................... Jn./And.ak eskatu eta jaso egin duela .................................................................. Kreditu Entitatetik mailegu kualifikatua, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak eta etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduak (2004ko irailaren 15eko Aginduaren bidez aldatua) arautua eta ...................... Kutxaren/Bankuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean sinatutako finantza-lankidetzarako hitzarmenaren arabera, eskritura honek formalizatzen duen mailegua, honako baldintza hauen ildotik.

*III.- Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu eta jaso egin duela diru-laguntza pertsonala, fondo galdura.*

**BALDINTZAK**

**Lehenengoa**.- .................................. Kutxa/Bankuak emakidatu eta eman egiten dio mailegu subsidiatua, ....................................... EUROkoa, ........................................... Jn./And.ari, *etxebizitza* baten (*merkataritza-lokala, eraikina, etab.)* birgaitze babestuko jarduketa pribatuaren titular gisa, mailegu hau onartu eta jaso egiten du ondoan adierazten diren modu, baldintza eta epean itzultzeko beharra hartuz.

**Bigarrena.-** Mailegu *subsidiatua,* 15 urteko eperako formalizatuko da, mailegu-kontratuak hiru urteko gehienezko gabealdia aintzat har dezake; hau amaitu ondoren, maileguaren tronkoa amortizatuko da 12 urteko epean, edo *5 urte gehi* hiru urteko gehienezko gabealdia *mailegu pertsonaletarako,* seihileko osoen arabera, eta amortizazio-jarduera konstanteen bidez egingo da horren amortizazioa, *kasu bakoitzean interes-tasa subsidiatuaren arabera kalkulatuak*, sei hileko epe-mugaz.

Itundutako epea gorabehera, zordunak amortizazio aurreratuak egin ditzake, hala saldo bizia nola amortizazio-epea murrizteko.

**Amortizazio-tasa aurreratu bakarra onartuko da sei hileko likidazioaldian.**

**Hirugarrena.-** Zordunak kontratu honetan formalizatzen den maileguari dagozkion betebehar guztiak epe barruan betetzen dituen bitartean, ezargarri den urteko benetako interes-tasa *finantza-lankidetzarako hitzarmenean* ezarritakoa izango da.

Urte beteko epe hori igarota, sei hiletik sei hilera eguneratuko da interes-tasa. Aplikagarri den tasaren berrikuspen hori maileguaren iraupenaren seihileko bakoitzean egingo da, ondorioak izaten hasita hurrengo seihileko lehenengo likidazioan (3., 4., 5., 6.,... epe-mugak), mailegua egin den egunetik zenbatzen hasita.

Honako hau izango da berrikusitako tasa:

- *“Entitate multzoa” (Banco de Españako Estatistika Buletinean argitaratzen den Altxortegi eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren 1991ko otsailaren 4ko Ebazpenean definituta hain zuzen) erreferentzia-tasaren 100eko 89 EURIBOR erreferentzia-tasaren urte batera eta EURIBOR urte batera gehi 1,25 gehitzetik ateratako tartean egonez gero, seihileko 3. likidazioaren eta ondorengoen berrikuspen irizpidea, “Entitate multzoa” erreferentzia-tasaren 100eko 89 izango da.*

*Aurreko idatz-zatian adierazi den "Entitate multzoa" erreferentzia-tasa honelaxe lortuko da: eskuragarri den informazioarekin azken hiru hilabeteetako batez bestekoa (abuztua, iraila eta urria, aurtengo lehenengo seihilekoan onartzen diren maileguetarako; otsaila, martxoa eta apirila, bigarren seihilekoan onartzen diren maileguetarako) hirugarren hilabeteari dagokion balio bikoitza haztatuz.*

Halaber, EURIBOR erreferentzia-tasa hori, Banco de Españak hilero argitaratzen duena, "Entitate multzoa" erreferentzia-tasa ateratzeko erabili den aipatutako era berean lortuko da.

Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

- "Entitate multzoa" erreferentzia-tasaren 100eko 89, EURIBOR erreferentzia-tasa baino txikiagoa izango balitz, azken EURIBOR erreferentzia-tasa hau aplikatuko da. Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

- "Entitate multzoa" erreferentzia-tasaren 100eko 89, EURIBOR erreferentzia-tasa gehi 1,25 baino handiagoa izango balitz, azken EURIBOR erreferentzia-tasa gehi 1,25 hau aplikatuko da. Ondoriozko interesaren lehenengo lau dezimalak hartuko dira kontuan, berrikusitako interes-tasa aplikagarria lortzeko.

"Entitate multzoa" desagertu edo Altxortegia eta Finantza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak onartu ezean, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak 1989ko abenduaren 5eko Ebazpenaz definitu zuen eta Banco de Españak hilero argitaratzen duen "Zor publikoaren errentagarritasuna. Indize eraginkorra" bihurtuko da ordezko erreferentzia-tasa. Kasu honetan, berrikusitako tasa kalkulatzeko ezar daitekeen koefizientea 100eko 89koa izango da.

Ondoriozko tasari, "Entitate multzoa" tasari ezarritako tarte bera ezarriko litzaioke eta aipatutako modu berean ere lortuko litzateke.

**Laugarrena.-** Zordunak finka hipotekatuaren zaintza egokira, kargatzen duten kontribuzioak eta zergak epe barruan ordaintzera eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, honek hala eska baleza, ordainketok eginak direneko ordainagiriak erakustera behartzen du bere burua.

*Era berean, behartzen du bere burua laguntzen emakidatik eta bost urteren bitartean ez lagatzera aipatutako finka inolaz ere bizikien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari jasotako laguntzen zenbateko osoa itzuli gabe, jaso zituenetik izandako interesetan gehituz.*

**Bosgarrena.-** *Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak diru-laguntzen itzulketa eska dezake honako kasu hauetan:*

a) Maileguaren zenbatekoa emakidarena ez den beste edozein helburu betetzeko erabiltzen bada.

*b) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkeztutako edozein dokumentu faltsutzea, etxebizitza birgaitzeko diru-laguntza eskariari dagokionez.*

*c) Zordunak honelako laguntzak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko legeriak, edo eskritura honen bidez hartzen dituenak ezartzen dizkioten betebeharrak beteko ez balitu.*

# LURZORU-ARLOKO JARDUKETA BABESGARRIAK.

**Oharra :** Etzanaz dagoen testua aldakorra da jarduketa-motaren eta Administrazioak subsidiazio eta diru-laguntzaren emakidaren edo ez emakidaren arabera.

II.- .......................................................................... Jn./And.ak eskatu eta jaso egin duela .................................................. Kreditu Entitatetik mailegu subsidiatua, lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduak, eta lehentasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu-bidez eskuratzeari dagozkion lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduak arautua eta .................................................... Kutxaren/Bankuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean sinatutako finantza-lankidetzarako hitzarmenaren arabera, eskritura honek formalizatzen duen mailegua, honako baldintza hauen ildotik.

*III.- Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu eta jaso egin duela diru-laguntza pertsonala, fondo galdura.*

**BALDINTZAK**

**Lehenengoa**.- .................................. Kutxak/Bankuak emakidatu eta eman egiten dio interes subsidiatuko mailegua, ........................EUROKOa, ............................................ Jn./And.ari, lurzoru-arloko jarduketa babesgarriaren titular denez, mailegu hau onartu eta jaso egiten du ondoan adierazten diren modu, baldintza eta epean itzultzeko beharra hartuz.

**Bigarrena.-** Mailegu subsidiatua, *6 urteko edo 12 urteko* eperako formalizatuko da 3 urteko gehienezko gabealdiarekin, epe honen barne egonik**,** eta amortizazio-jarduera konstanteen bidez egingo da horren amortizazioa, *kasu bakoitzean interes-tasa subsidiatuaren arabera kalkulatuak*, sei hileko epe-mugaz.

Itundutako epea gorabehera, zordunak amortizazio aurreratuak egin ditzake, hala saldo bizia nola amortizazio-epea murrizteko. Kasu honetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak interes-tasaren subsidiazio gisa ordaindu beharreko zenbatekoa murriztu egingo da egindako amortizazio aurreratua dela-eta kapitala murrizten den neurri berean.

**Amortizazio-tasa aurreratu bakarra onartuko da sei hileko likidazioaldian.**

Mailegua aurretiaz kitatuko da, epea bukatu baino lehen, mailegariak finantzagai den lurzorua eskuz aldatuko balu ordainbidez edo mailegariak ekiten dion etxebizitzen sustapena finantzatzeko beste mailegu bat lortuko balitz, aipatutako beste finantzazio hori Administrazio honek eman ezean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduan, lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzkoan, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduan, lehentasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu-bidez eskuratzeari dagozkion lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzkoan, jasotzen diren baldintzen arabera.

**Hirugarrena.-** Zordunak kontratu honetan formalizatzen den mailegu subsidiatuari dagozkion betebehar guztiak epe barruan betetzen dituen bitartean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ordaindutako subsidiazioaren hasierako zenbatekoa, indarreko araudian eta aipatutako finantza-lankidetzarako hitzarmenean jasotako era eta baldintzetan, eskuratze, urbanizatze edo berehala urbanizatzeko kasuetan, zordunak ordaindu beharreko urteko benetako interes-tasa % 2 izateko beharrezkoa dena izango da eta ondare publikoak eratzeko eskuratzen denean % 3 izateko beharrezkoa.

**Laugarrena.-** Zordunak finka hipotekatuaren zaintza egokira, kargatzen duten kontribuzioak eta zergak epe barruan ordaintzera eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, honek hala eska baleza, ordainketok eginak direneko ordainagiriak erakustera behartzen du bere burua.

Era berean, eraikuntzari honelako laguntzak ematen dituen indarreko araudian ezarritako epeetan hasiera ematera behartzen du bere burua.

**Bosgarrena.-** Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hipoteka-maileguaren interes-tasen subsidiazioari utzi diezaioke honako kasu hauetan:

*a) Maileguaren zenbatekoa emakidarena ez den beste edozein helburu betetzeko erabiltzen bada.*

b) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkeztutako edozein dokumentu faltsutzea, laguntza-eskariari dagokionez.

c) Zordunak figura babesgarri hori arautzen duen Aginduan jasotzen diren baldintza edo beharkizunak beteko ez balitu.

d) Aipatutako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduari, lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzkoari, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduari, lehentasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu-bidez eskuratzeari dagozkion lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzkoari, dagokien eremu gehigarri eraikigarriaren gaineko jarduketei dagokien mailegu-zatiaren subsidiazioa, eten egingo da babes ofizialeko etxebizitzak eta hauek dauden eraikin berean kokatutako negozio-lokalak edo hirigintzazko aginduez agindutako tresneria eta horniketak ez izateko helburuz eraikinen eraiketari ekiten zaion momentuan.

e) Hasieran ezarritako programazioa Autonomia Erkidegoaren baimenik gabe aldatzen denean, edo programazio hau betetzean, taxuzko arrazoirik gabe, atzerapenek ezarritako eraikitze-epeak betetzeko ezintasuna adierazten dutenean.

**Seigarrena.-** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eskatu ahal izango du, bere kabuz, ............................................. Kutxak/Bankuak emakidatutako maileguen interes-tasetarako *diru-laguntza eta subsidiazio* gisa emandako zenbatekoen itzulketa, aurreko klausuletan jasotako kasuak direla-eta.

# VII. ERANSKINA

# ETXEBIZITZA ETA LURZORU ARLOKO FINANTZA-HITZARMENPEKO SUBSIDIOAK KREDITU-ENTITATEEI LIKIDATZEA

---

# ANEXO VII

# LIQUIDACIÓN DE SUBSIDIOS A LAS ENTIDADES DE CRÉDITO SUJETOS AL CONVENIO FINANCIERO EN MATERIA DE VIVIENDA Y SUELO.

ETXEBIZITZA ETA LURZORU ARLOKO FINANTZA-HITZARMENPEKO SUBSIDIOAK KREDITU-ENTITATEEI LIKIDATZEKO DISKETE-FORMATUA.

| Atala | I. Zut. | F Zut. | Pic. | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|
| 01 | 001 | 004 | 9999 | Entitatearen kodea. |
| 02 | 005 | 022 | X(18) | Espedientearen zenbakia |
| 03 | 023 | 037 | X(15) | Entitatearen mailegu-kodea |
| 04 | 038 | 039 | 99 | Mailegua zein egunetan onetsi zen |
| 05 | 040 | 041 | 99 | Mailegua zein hilabetetan onetsi zen |
| 06 | 042 | 045 | 9999 | Mailegua zein urtetan onetsi zen |
| 07 | 046 | 056 | X(11) | NAN/IFK, pasaportea edo egoitza-txartela. |
| 08 | 057 | 096 | X(40) | Maileguaren titularraren lehen abizena |
| 09 | 097 | 136 | X(40) | Maileguaren titularraren bigarren abizena |
| 10 | 137 | 196 | X(60) | Maileguaren titularraren izena |
| 11 | 197 | 207 | 9(9)V99 | Likidazio-mugimenduaren zenbatekoa |
| 12 | 208 | 209 | 99 | Likidazio-mugimendua zein egunetan egin zen |
| 13 | 210 | 211 | 99 | Likidazio-mugimendua zein hilabetetan egin zen |
| 14 | 212 | 215 | 9999 | Likidazio-mugimendua zein urtetan egin zen |
| 15 | 216 | 226 | 9(9)V99 | Likidazioaren amaierako saldo bizia |
| 16 | 227 | 232 | 99V9(4) | Likidazioan hitzartutako interes-tasa nominala |
| 17 | 233 | 238 | 99V9(4) | Likidazioaren onuradunarentzako interes-tasa nominala |

**ETXEBIZITZA ETA LURZORU ARLOKO FINANTZA-HITZARMENPEKO SUBSIDIOAK KREDITU-ENTITATEEI LIKIDATZEKO DISKETE-FORMATUA.**

## 1. - DATU OROKORRAK

Likidazio datuak 3 1/2 "-ko disketetan bidaliko dira.

· Erregistroak Liquid.txt izeneko ASCII fitxategi batean bilduta bidaliko dira.

· Erregistroak bereizle bidez banatuko dira ( 13-10 edo OD-OA ).

Eremu hutsak ez dira zero bitarrez beteko.

## 2. - ERREGISTROEN INFORMAZIOA

**01) Entitatearen Kodea**. 001 zutabetik 004 zutabera. PIC 9999 formatua.

Entitatearen Kodea Banku Kontseilu Gorenak kodetutakoaren arabera.

**02) Espedientearen Zenbakia**. 005 zutabetik 022 zutabera. PIC X(18) formatua.

Administrazio-ebazpenean agertzen den zenbakiari dagokio, eta honako definizio hau du:

05-06 Zut. "EB" karaktereak.

07-07 Zut. Lurralde-kodea.

1 = Araba.

2 = Bizkaia.

3 = Gipuzkoa.

08-08 Zut.. "-" karakterea.

09-12 Zut. Espediente zenbaki korrelatiboa, Lurralde bakoitzeko.

13-13 Zut.. "/" karakterea.

14-15 Zut. Espedientearen Urtea.

16-16 Zut. "-" karakterea.

17-18 Zut.. Espediente-motari dagozkion hizki bi

19-19 Zut. "-" karakterea.

20-22 Zut. Espediente-zenbakiaren hiru digitu korrelatibo.

**03) Entitatearen Mailegu-kodea.** 023 zutabetik 037 zutabera. PIC X(15) formatua.

Kredituko Finantza Entitateak maileguari onartzen den unean ematen dion identifikazioa.

**04) Mailegua zein egunetan onetsi zen.** 038 zutabetik 039 zutabera. PIC 99 formatua.

Kredituko Finantza Entitateak aldez aurretik eskatu ondoren, Finantza Plangintza eta Kudeaketako Zuzendaritzak mailegua onesten duen egunari dagokio.

**05) Mailegua zein hilabetetan onetsi den.** 040 zutabetik 041 zutabera. PIC 99 formatua.

Kredituko Finantza Entitateak aldez aurretik eskatu ondoren, Finantza Plangintza eta Kudeaketako Zuzendaritzak mailegua onesten duen hilabeteari dagokio.

**06) Mailegua zein urtetan onetsi den.** 042 zutabetik 045 zutabera. PIC 9999 formatua.

Kredituko Finantza Entitateak aldez aurretik eskatu ondoren, Finantza Plangintza eta Kudeaketako Zuzendaritzak mailegua onesten duen urteari dagokio.

**07) NAN/IFK, pasaportea edo egoitza-txartela.** 046 zutabetik 056 zutabera. PIC X (11) formatua.

Maileguaren titularraren nortasun-agiri nazionalaren, identifikazio fiskaleko kodearen, pasaportearen edo egoitza-txartelaren zenbakiari dagokio. Datuak ezkerrerantz doituko dira, eskuinaldean geratzen diren lekuak hutsik utzita.

**08) Maileguaren titularraren lehen abizena.** 057 zutabetik 096 zutabera. PIC X (40) formatua.

Maileguaren titularraren lehen abizenari dagokio.

**09) Maileguaren titularraren bigarren abizena.** 097 zutabetik 136 zutabera. PIC X (40) formatua.

Maileguaren titularraren bigarren abizenari dagokio.

**10) Maileguaren titularraren izena.** 137 zutabetik 196 zutabera. PIC X (60) formatua.

Maileguaren titularraren izenari dagokio.

**11) Likidazio-mugimenduaren zenbatekoa.** 197 zutabetik 207 zutabera. PIC 9(9)V99 formatua.

Likidazio-mugimenduaren zenbatekoari dagokio. Zenbatekoa eurotan ematen denez bi hamartar jarriko dira.

**12) Likidazio-mugimendua zein egunetan egin zen.** 208 zutabetik 209 zutabera. PIC 99 formatua.

Maileguaren titularrari likidazio-mugimendua egiten zaion egunari dagokio.

**13) Likidazio-mugimendua zein hilabetetan egin zen.** 210 zutabetik 211 zutabera. PIC 99 formatua.

Maileguaren titularrari likidazio-mugimendua egiten zaion hilari dagokio. Likidazio hau sei hilabetekoa izango da eta erreferentziatzat formalizazio-eguna hartuko da, kitapen-mugimenduen kasuetan izan ezik.

**14) Likidazio-mugimendua zein urtetan egin zen.** 212 zutabetik 215 zutabera. PIC 9999 formatua.

Maileguaren titularrari likidazio-mugimendua egiten zaion urteari dagokio.

**15) Likidazioaren amaierako saldo bizia.** 216 zutabetik 226 zutabera. PIC 9(9)V99 formatua.

Likidazio-mugimendua zenbatu ondoren geratzen den saldo biziari dagokio. Kitapen-mugimenduaren kasuan likidazioaren amaierako saldo bizia zero izango da.

**16) Likidazioan hitzartutako interes-tasa nominala.** 227 zutabetik 232 zutabera. PIC 99V9(4) formatua.

Interes-tasa nominala ehunekotan (bi puntu eta lau dezimal), likidazioa egiten den unean indarrean dagoen hitzarmenak ezarritako interes-tasa nominalari dagokiona.

**17) Onuradunarentzako interes-tasa nominala likidazioaren unean.** 233 zutabetik 238 zutabera. PIC 99V9(4) formatua.

Onuradunak ordaindu beharreko interes-tasa nominala ehunekotan (bi osoko eta lau hamartar). Entitatearena bera izango da, edo baita tasa subsidiatua ere, administrazio-ebazpenean hala adierazten bada.

# VIII. ERANSKINA

# ETXEBIZITZA ETA LURZORU ARLOKO FINANTZA-HITZARMENPEKO DIRU-LAGUNTZAK KREDITU-ENTITATEEI ORDAINTZEA

---

# ANEXO VIII

# PAGO DE SUBVENCIONES A LAS ENTIDADES DE CRÉDITO SUJETAS AL CONVENIO FINANCIERO EN MATERIA DE VIVIENDA Y SUELO

**ETXEBIZITZA ETA LURZORU ARLOKO FINANTZA-HITZARMENPEKO DIRU-LAGUNTZAK KREDITU-ENTITATEEI ORDAINTZEKO DISKETE-FORMATUA.**

| Atala | I. Zut. | F Zut. | Pic. | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|
| 01 | 001 | 004 | 9999 | Entitatearen kodea. |
| 02 | 005 | 022 | X(18) | Espedientearen zenbakia |
| 03 | 023 | 033 | X(11) | NAN/IFK, pasaportea edo egoitza-txartela. |
| 04 | 034 | 073 | X(40) | Diru-laguntzaren titularraren lehenengo abizena. |
| 05 | 074 | 113 | X(40) | Diru-laguntzaren titularraren bigarren abizena. |
| 06 | 114 | 173 | X(60) | Diru-laguntzaren titularraren izena. |
| 07 | 174 | 175 | 99 | Diru-laguntza zein egunetan onartu zen. |
| 08 | 176 | 177 | 99 | Diru-laguntza zein hilabetetan onartu zen. |
| 09 | 178 | 181 | 9999 | Diru-laguntza zein urtetan onartu zen. |
| 10 | 182 | 192 | 9(9)V99 | Onarturiko diru-laguntzaren zenbatekoa. |
| 11 | 193 | 194 | 99 | Diru-laguntza zein egunetan ebatzi zen. |
| 12 | 195 | 196 | 99 | Diru-laguntza zein hilabetetan ebatzi zen. |
| 13 | 197 | 200 | 9999 | Diru-laguntza zein urtetan ebatzi zen. |
| 14 | 201 | 220 | X(20) | Ordainketarako kontu-zenbakia |

**ETXEBIZITZA ETA LURZORU ARLOKO FINANTZA-HITZARMENPEKO DIRU-LAGUNTZAK KREDITU-ENTITATEEI ORDAINTZEKO DISKETE-FORMATUA.**

**1. - DATU OROKORRAK**

· Diru-laguntzen ordainketa-datuak 3 1/2 "-ko disketetan bidaliko dira.

· Erregistroak ASCII fitxategi batean bilduta bidaliko dira.

· Erregistroak bereizle bidez banatuko dira ( 13-10 edo OD-OA ).

· Eremu hutsak ez dira zero bitarrez beteko.

**2. - ERREGISTROEN INFORMAZIOA**

**01) Entitatearen Kodea**. 001 zutabetik 004 zutabera. PIC 9999 formatua.

Entitatearen Kodea Banku Kontseilu Gorenak kodetutakoaren arabera.

**02) Espedientearen Zenbakia**. 005 zutabetik 022 zutabera. PIC X(18) formatua.

Administrazio-ebazpenean agertzen den zenbakiari dagokio, eta honako definizio hau du:

05-06 Zut. "EB" karaktereak.

07-07 Zut. Lurralde-kodea.

1 = Araba.

2 = Bizkaia.

3 = Gipuzkoa.

08-08 Zut.. "-" karakterea.

09-12 Zut. Espediente-zenbaki korrelatiboa, Lurralde bakoitzeko.

13-13 Zut.. "/" karakterea.

14-15 Zut. Espedientearen Urtea.

16-16 Zut. "-" karakterea.

17-18 Zut. Espediente-motari dagozkion hizki bi

19-19 Zut. "-" karakterea.

20-22 Zut. Espediente-zenbakiaren hiru digitu korrelatibo

**03) NAN/IFK, pasaportea edo egoitza-txartela.** 023 zutabetik 033 zutabera. PIC X (11) formatua.

Maileguaren titularraren nortasun-agiri nazionalaren, identifikazio fiskaleko kodearen, pasaportearen edo egoitza-txartelaren zenbakiari dagokio. Datuak ezkerrerantz doituko dira, eskuinaldean geratzen diren lekuak hutsik utzita.

**04) Diru-laguntzaren titularraren lehen abizena.** 034 zutabetik 073 zutabera. PIC X (40) formatua.

Maileguaren titularraren lehen abizenari dagokio.

**05) Diru-laguntzaren titularraren bigarren abizena.** 074 zutabetik 113 zutabera. PIC X (40) formatua.

Maileguaren titularraren bigarren abizenari dagokio.

**06) Diru-laguntzaren titularraren izena.** 114 zutabetik 173 zutabera. PIC X (60) formatua.

Maileguaren titularraren izenari dagokio.

**07) Diru-laguntza zein egunetan onartu zen.** 174 zutabetik 175 zutabera. PIC 99 formatua.

Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzak diru-laguntza onetsi duen egunari dagokio, Kredituko Finantza Entitateak eskabidea egin ondoren.

**08) Diru-laguntza zein hilabetetan onartu zen.** 176 zutabetik 177 zutabera. PIC 99 formatua.

Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzak diru-laguntza onetsi duen hilari dagokio, Kredituko Finantza Entitateak eskabidea egin ondoren.

**09) Diru-laguntza zein urtetan onartu zen.** 178 zutabetik 181 zutabera. PIC 9999 formatua.

Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzak diru-laguntza onetsi duen urteari dagokio, Kredituko Finantza Entitateak eskabidea egin ondoren.

**10) Onarturiko diru-laguntzaren zenbatekoa.** 182 zutabetik 192 zutabera. PIC 9(9)V99 formatua.

Ordaintzen den diru-laguntzaren zenbatekoari dagokio. Zenbatekoa eurotan ematen denez bi hamartar jarriko dira.

**11) Diru-laguntza zein egunetan ebatzi zen.** 193 zutabetik 194 zutabera. PIC 99 formatua.

Lurralde Ordezkaritzak diru-laguntza onartzeko administrazio-ebazpena ematen duen egunari dagokio.

**12) Diru-laguntza zein hilabetetan ebatzi zen.** 195 zutabetik 196 zutabera. PIC 99 formatua.

Lurralde Ordezkaritzak diru-laguntza onartzeko administrazio-ebazpena ematen duen hilabeteari dagokio.

**13) Diru-laguntza zein urtetan ebatzi zen.** 197 zutabetik 200 zutabera. PIC 9999 formatua.

Lurralde Ordezkaritzak diru-laguntza onartzeko administrazio-ebazpena ematen duen urteari dagokio.

**14) Ordainketarako kontu-zenbakia.** 201 zutabetik 220 zutabera. PIC X(20) formatua.

Bezeroari ordaintzeko kontu-zenbakiari dagokio, eta honako definizio hau du:

294 zutabetik 297 zutabera. Kredituko Finantza Entitatearen kodea.

298 zutabetik 301 zutabera. Kredituko Finantza Entitatearen Sukurtsalaren kodea.

302 zutabetik 303 zutabera. Bezeroaren kontu korrontearen zenbakia kontrolatzeko digitua.

304 zutabetik 313 zutabera. Bezeroari ordaintzeko kontu-zenbakia.